



LIBURUA

Marx revisited



%99REN ALDEKO FEMINISMOA CINZIA ARRUZZA, NANCY FRASER ETA TITHI BHATTACHARYA

ITZULTZAILEA: DANELE SARRIUGARTE
TXALAPARTA, 2019

AMAIA ALVAREZ URIA

2016 eta 2017ko mobilizazio feminista jendetsuen ondorioz (Poloniako abortuaren aldeko greba, Argentinako *Ni una menos* martxa, M8ko lehen greba feminista) jaio zen manifestu hau. Laugarren olatu feministaren ganean datorkigu eskuartera Cinzia Arruzzak, Nancy Fraserrek eta Tithi Bhattacharyak argitaratu dutena, Danele Sarriugartek Txalapartarako euskaratuta.

Egileen arabera une historiko batean bizi gara eta esku hartzeko garaia heldu da. %99ren aldeko feminismo bat aldarrikatzen dute, hau da, feminismo antikapitalista, antiarrazista, dekolonial eta antiheterosexista. Izan ere, feminismo liberalarenak egin duela diote, gutxiengo bat askatzeko xedea duelako: “Ez dugu kristalezko sabaia hautsi nahi baldin eta

ondoren emakumeen gehiengoari egokitu bazezko hondakinak garbitzea”.

Krisi kapitalistak erreproduzio soziala emakumeen bizkar utzi eta balioz hustean, emakumeen zapalkuntza eta haien kontrako indarkeria ditugu: “Klase borrokari buruzko gure ikuspuntua zabaldu behar dugu. Munduko langileen gehiengo migratzaileek, jende arrazializatuak, emakumeek –zis eta trans– eta askotariko gaitasunak dituen jendeak osatzen dute”.

Sistema honek sexualitatea arautu nahi du eta lurra suntsitu. Arrazista eta kolonialista da eta ez du demokraziaren edo bakearen alde egiten. Horregatik mugimendu erradikal guztiei dei egiten diete bat egiteko eta jendartea eraldatuko duen matxinada antikapitalista sortzeko.

Baina autokritika ere egin behar da: feministotik aldarrikatu den ahizpatasunari interseksionalitatek begiratu behar diogu: “Nahiz eta gizarte kapitalistan denok sufritzen dugun opresio misoginoa, opresioak hainbat aurpegi hartzen ditu. Opresioak elkarri loturik daude, eta beti ez dira errazak ikusten; horregatik politikaren bidez ikusarazi behar dira, hots, elkertasuna eraikitzeko ahalegin kontzienteak eginez”.

Mugimendu feminista beti dabil dena berrikusten, eta manifestu hau da, azaro hasierako jardunaldi feministekin batera, horren erakusgarri. Gogoeta, pentsamendua eta diskurtsoa garrantzitsuak direnez praktika, ekintza eta eraldaketa gauatzeko hau irakurtzera animatzen zaituztegu. ●